

BEASAINGO UDALA	
2013 URR. - 2	
SARRERA-ENTRADA	IRTEERA-SALIDA
Zk. N° 2748	Zk. N°

MOZIOA

Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPren gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.


Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoen eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoen euskal herritarzearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarreratik abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztopatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politiko horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkutatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzea ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

- 1.- Beasaingo Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxilotetak herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.
- 2.- Beasaingo Udalak Herriraren kriminalizioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.
- 3.- Beasaingo Udalak euskal presoen euskal herritarzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.
- 4.- Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.


 BILDU - ARALAR

Euskal Herrian, 2013ko urrian